

## ERAKUNDEAREN DATUAK

<b>1. Erakundearen izena:</b>	HORBEL
<b>2. Sektorea:</b>	Zerbitzuak
<b>3. Langile kopurua:</b>	64
<b>4. Webgunea:</b>	<a href="https://www.horbel.eus/">https://www.horbel.eus/</a>
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Gizarte-ekimeneko kooperatiba gara. Esku-hartze sozialaren esparruan aritzen gara, haur, nerabe eta gazteak ardatz hartuta, eta laguntza teknikoko, esku hartzeko eta aholkularitzako kalitatezko zerbitzuak ematen dizkiegu erakunde publiko nahiz pribatuei.</p> <p>Gure lan-ildoak askotarikoak dira eta eskarmentu handia dugu, besteak beste, gazteria-politika eta –programetan, haur eta nerabeen babesean, komunikazio hezitzailean, hezkuntza ez formalean, aisiaren eta astialdiaren pedagogian, psikologian, gizarte-hezkuntzan, etab..</p> <p>Xedea: Haurren, nerabeen eta gazteen ongizatea da gure helburu nagusia; orain nahiz etorkizunean kalitatezko bizitza duina izan dezaten sustatzea, haiei babesa eta aukera-berdintasuna bermatzea.</p>

## Harremanetarako datuak

<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Idoia Murua
<b>Helbide elektronikoa:</b>	imurua@horbel.eus
<b>Telefonoa:</b>	943 472580

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<b>1. Praktika onaren titulua:</b>	<b>Euskara Batzordea, prestakuntza-plana eta euskararen txokoa</b>
<b>2. Praktika onaren azalpena:</b>  Zer da? Zertan datza?  Nondik dator?  Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Pandemiak atzeratu egin badu ere, Euskara Batzordea sortu dugu erakundeak dituen zerbitzu guztien eta Zuzendaritzaren ordezkariekin. Ordura arte, erakundearen kudeaketa-planean modu batera edo bestera sartuta zegoen euskararen gaia, baina orain gai guztiak batzordetik pasatzen edo abiatzen dira, eta horrek indar handiagoa ematen dio.</p> <p>Batzordearen helburua da: “Entitatean euskara laneko eta harremanetarako hizkuntza izan dadin sustatzea”</p> <p>Xede hori eta Zuzendaritzaren kudeaketa-planean markatutakoa kontuan hartuta, hiru lan-ildo ezarri ziren:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Langileek euskara erabili ahal izateko gaitasuna ziurtatzea (Prestakuntza).</li><li>Lanean euskara normaltasunez erabiltzeko laguntza eta baliabideak ematea. (Trebakuntza)</li><li>Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta ekimenak antolatzea (Dinamizazioa)</li></ol> <p>Batzordeak aurrera eramandako praktika garrantzitsu batzuk dira:</p> <p>PRESTAKUNTZA- eta TREBAKUNTZA-PLANA:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>Entitatearen zerbitzuetan euskararen errealitatea zein zen ezagutzeko diagnostikoa egin zen, euskara-plana osatu ahal izateko. Horretarako, galdetegi bat bidali zen, eta emaitzak ere langile guztien artean zabaldu ziren.</li><li>Datu horiek ikusita, prestakuntza- eta trebakuntza-plan bat osatu zen, kanpoko eragile baten bidez erakundearen bertan garatzeko:<ul style="list-style-type: none"><li>Prestakuntzaren helburua da euskaraz aritzeko B2 edo C1 mailako gaitasuna lortzea.</li><li>Trebakuntzaren helburua da, jada euskaraz aritzeko gaitasuna dutenei batez ere beren lana euskaraz egiteko laguntza teknikoak ematea.</li></ul></li></ol>

## EUSKARAREN TXOKOA

Euskarari buruzko gaietarako helbide elektronikoko bat eta euskararen txokoa sortu dira. Horien bitartez kudeatzen dira batzordearen aktak, euskara-baliabideak, zalantzak, informazioa, etab.

## EUSKARALDIA

Entitateak izena eman du 2022ko Euskaraldian, aurreko edizioetan bezala. Baina oraingoan, informazio- eta motibazio-lan berezi bat egiten ari da komunikazio-atalarekin koordinatuta. Asmoa da jende gehiagok parte hartzea eta benetan ekimenaren parte sentitzea.

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

Hau da 2020-2022 kudeaketa-planean euskarari dagokion atala. Ekintza gehienak aurten jarri dira martxan, pandemiaren ondorioz.

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
1	2020 - 2022 KUDEAKETA PLANA																				
2																					
3	ARDURADUNA 2022												ADIERAZLEAK								
4																					
5	1. LERROA: ERAKUNDEA																				
6	H.E.3	<b>3 Erakundearen edozein esparruetan euskara</b>																			
7	H.O	3.1	Barruko posta elektronikoa euskaraz		Koordinatzaileak	X		X													
8			dutenei, posta euskaraz erabiltzeko mezu bateratu eta zuzenak prestatu eta ezarri		Euskara Batzordea	X		X													
9																					
10	H.O	3.2	Langile guztiek gutxieneko B2 izatea																		
11			3.2.0 Euskara batzordea martxan jarri		Zuzendaritza	X	X														
12			3.2.1 Euskararen arloan dagoen errealitatearen diagnostikoa egin		Euskara Batzordea	X		X	X												
13			3.2.2 Euskarazko maila izatera heltzeko neurriak ezarri		Euskara Batzordea	X				X	X	(X)									
14			3.2.3 Euskarazko prestakuntza jasotzeko dirulaguntzak aztertu		Euskara Batzordea	X				X	X	(X)									
15	H.O	3.3	Euskaraldian parte hartzea sustatzea																		
16			3.3.1 Euskaraldian parte hartu		Euskara Batzordea	X				X	X				X	X					
17	H.O	3.4	Euskara zeharkako gai bihurtzea																		
18			3.4.1 Kudeaketa-sistema orokorrean euskara txertatzea		Euskara Batzordea	X												X			

Euskaraldian parte hartzera animatzeko mezu bat, egutegiarekin:

## EUSKARALDIA. Hitzez ekiteko garaia

Iraila



Urria



Azaroa



Abendua



**IRAILAREN 28AN**, norbanakoek izena emateko epea zabalduko da (guk Horbelen bitartez egiteko aukera izango dugu, aurrerago zehaztasun gehiago emango dizkizuegu).

**AZAROA**, txapak Horbelen jasoko ditugu.

**AZAROAREN 18TIK ABENDUAN 2RA**, Euskaraldia bera.

Informaziorako:

@ euskara@horbel.eus

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
 GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
 POLITIKA SAILA  
 DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Y POLITICA LINGÜÍSTICA